

Preso politikoak

Euskaldunon Egunkaria, 1995-12-03: 3.

ETAko 500 presoak, komunak ala politikoak diren, hara gaur sortu diguten eztabaida. Ikusteko erabiltzen dugun kristalaren kolorean dago, agian, egiazko klabea, baina objetiboen izan daitekenetik, Unamunok erabiltzen zuen hitzen esanbideetatik, saiatuko gara. Hiztegiak diotenez, delitua izan daiteke, besteak beste, komuna edo politikoa. Komuna dena, kodigo orokorrean zigortzen da, eta politikoa, Estatuko ordenaren aurka egiten dena da. Honeraino, ez dago zalantzarik ETAREN helburua Estatua dela, beraz, etarrek egin delitu politikoa litzateke. Halere, anitzen ustez Estatuaren aurkako politikazko ekintza barruan egindako krimen asko komunak dira. Bai, ulertzen da arrazonaketa hau, baina hemen bereizi behar direnak ekintzen zentzuak dira, egiazko aproposasun lehenak duena, lehen asmoa, asmo nagusia, edo ekintzaren bidenabar egindako krimena izatea suertatzen den bestea. Begira Isaak Rabin eta Yasir Arafaten gaur bertoko exenpluei, biek bultza dute indarkeria gogor eta ankerren; bada, nola ikusi eta epaituko ditu historiako Auzitegiak?